

ELKARBIZITZE ARAUAK

IKASTEGIKO INSTALAKUNTZEN ETA MATERIALAREN ERABILERA

- Ikasgeletan dauden ikaskideak ez molestatzeko, eskaileretatik gora eta behera eta korridoreetan zehar, zaratarik egin gabe eta beharrezkoak ez diren oihiak egin gabe ibili behar da.
- Paperak eta bestelako hondakinak beti ere zakarrontzietan utzi behar dira zorura bota barik.
- Ikastegian dugun ekipamenduak (aulkiak, mahaiak, iragarki oholtzak, e.a.) era egokian erabiltzea eta errespetatzea guzti guztion betebeharra da.
- Eusko Jaurlaritzak ezarritako arautegiaren arabera erabat debekaturik dago ikastegietan erretzea.

PORTAERA IKASGELAN

- Ikasleek beren ikasgela garbi eta txukun mantentzeko ardura izango dute. Era berean beren lankideek zein beste batzuek eragin litzaketen kalteak ekiditen saiatuko dira.
- Irakasleak azalpenak ematen dituen bitartean, nahiz ikasleren batek parte hartzen duenean isilean izan behar dugu (ez zarata, ez kolperik ere).
- Ikastorduan zehar ez da erabiliko ikastordurako beharrezkoa ez den bestelako materialik. Era berean ekintza akademikorako beharrezkoak ez diren materialak ez dira ikastegira ekarriko, hauek guztiak entretenigarri baino ez baitira gertatuko (tresna elektronikoak, sakelakoak, karta-sortak, e.a.).
- Ikasleak, irakasleei nahiz beste ikaskideei BEHAR DEN BEGIRUNEAZ eta EDOZEIN ERATAKO INDARKERI FISIKO ZEIN HITZEZKOAK EKIDITUZ mintzatuko zaizkie.
- Ikastordua amaitu bitartean, irakaslearen baimena behar da leku-aldatzeko eta ikasgelan zehar ibiltzeko.
- Ikasgelan era egokian eseririk egon behar da.
- Ezin da jaurtiki ez paperik, ez beste edozein gauzarik ikasgelaren alde batetik bestera. Honelakoak zakarrontzira botatzeko ikastorduaren amaierara itxaron behar izango da.
- Ikastorduen artean ezin irten daiteke ikasgelatik, irakaslearen baimenaz ez bada.
- Ikasgela barruan ezin edan eta jan daiteke. Honetarako jolasaldiak ditugu.

LAN ETA IKASKETA AZTURAK

- Ikastorduan beharrezko izango dugun material guztia, garaiz eraman behar izango dugu.
- Etxerako atazak eta, egunean eraman behar izango ditugu.
- Lanak eta ariketak era garbi, txukun eta irakurgarrian eta ezarritako epean eman behar izango dira.
- Ikasle guztiak hartuko dute parte ikastorduan, arreta galdu eta galarazi gabe.
- Hitz egiteko txanda errespetatuko da. Besoa altxatuz parte hartzeko baimena eskatuko da eta irakasleak esandakoari so egingo zaio.
- Inork ez du barrerik egin behar beste ikaskide batek gaizki erantzutean.

HONAKO HONETAN BILDURIKO ARAUREN BAT EDO, EZ BETETZEA, NOLA IKASTEGIAREN PARTAIDE GUZTIEN ELKARBIZITZA NORMALA ZEIN ELKARREN ARTEKO BEGIRUNEA HONDA DEZAKEEN BESTELAKO EDOZEIN EKINTZA ETA JOKABIDEA IZATEA FALTATZAT HARTUKO DA

Kasu bakoitza ikertuta, falta mota erabakiko da (arina, larria edo oso larria). Santzioak, falta motaren arabera ezarriko dira, eta beti ere Eskola Kontseilua izango da elkarbizitza arauak bete arazten arduratuko dena.